

LEITZA ▶

Txapelarik gabe etxera

Bengoetxeak finala galdu zuen ▶ 7



Atzo berriz piztu zen igandeko sutea Elduainen; jada kontrolpean dago

ERAGINDA ▶ Igandean 01:00etan hasi zen; 100 hektarea erre zituen eta bi errepide itxita egon ziren ▶ 5



Elduaingo ikuspegi orokorra igande goizean, mendian sutea ikusten dela. J.SAIZAR



Bi atxiloketen aurkako protesta ekintzak izan dira

IBARRA-LIZARTZA ▶ Altuna eta Aranalde Parisera eraman dituzte eta inkomunikatuta jarraitzen dute; gaur deklaratu dute ▶ 6

TOLOSA ▶

Hegoalde 2-5 galdu du Soto del Realekin

Aurreko garaipena ez zuen errepikatu ▶ 2

TOLOSA ▶

80 bat lagun elkartu ziren erromeri giro ederrean

Usadio zaharrak berreskuratuz, musika eta dantza batu ziren ▶ 3



N.LATABURU

ZIZURKIL ▶

Oria ibaiko ibarra hobetzeko lanak

Lau urte iraungo dute ▶ 4

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakum. Ohorezko Maila.

Hegoalde-Soto del Real	2-5
Sailkapena ▶	
1. Females Elx	58 puntu
2. Futsi Navalcarnero	50 puntu
3. UCAM Murtzia	41 puntu
4. Foticos Zaragoza	40 puntu
5. Club Teledportivo	34 puntu
6. Ketal Fuenlabrada	31 puntu
7. Mostoles	31 puntu
8. Ourense	30 puntu
9. Soto del Real	29 puntu
10. Gironella	27 puntu
11. Hegoalde	23 puntu
12. Diamante Rioja	23 puntu
13. Arturo Eyries Valladolid	14 puntu
14. Goierri Urrebu	12 puntu
15. Valdeñires Meiras	10 puntu
16. Cabanyal Valencia	9 puntu

1. Maila A.

UPV/EHU-Ibarra	3-2
----------------	-----

Liga Autonomikoa.

Ventas Isu-Transp.Lakuntza	5-3
----------------------------	-----

1. Maila.

Cash Converters-Tecnun	5-1
------------------------	-----

Jubenilen Maila.

San Juan-Lauburu	7-5
------------------	-----

ESKU PILOTA

GARZIANDIA TXAPELKETA

Final-laurdenak.

Mikelperezina-Retegi / Renobales-Belloso	22-16
Baez-Dominguez / Garcia-Moran	22-16

FUTBOLA

Gorengo Maila.

Tolosa-Urola	6-0
Sailkapena ▶	
1. Tolosa	62 puntu
2. UPV/EHU	59 puntu
3. Ordizia	57 puntu
4. Real Union B	51 puntu
5. Zarautz	51 puntu
6. Trintxerpe	45 puntu
7. Pasajes	39 puntu
8. Touring	39 puntu
9. Hondarribia	38 puntu
10. Mondragon	38 puntu
11. Zestoa	37 puntu
12. Mutriku	36 puntu
13. Anaitasuna	34 puntu
14. Orioko	33 puntu
15. Aloña Mendi	33 puntu
16. Aretxabaleta	32 puntu
17. Urola	31 puntu
18. Beti Gazte	29 puntu
19. Bergara	28 puntu
20. Oiartzun	15 puntu

Nesken Liga. Igoera fasea.

Tolosa-Beti Ona	3-2
-----------------	-----

Lurraldekako 1. Maila.

San Inazio-Aurrera	0-3
--------------------	-----

Tolosa B-Euskalduna 0-1

Sailkapena ▶	
1. Euskalduna	47 puntu
2. Allerru	47 puntu
3. Irun 1902	46 puntu
4. Martutene	43 puntu
5. Beti Ona	41 puntu
6. Ostadar	37 puntu
7. Lengokoak	36 puntu
8. Vasconia	35 puntu
9. Astigarragako	33 puntu
10. Behobia	33 puntu
11. Roteta	32 puntu
12. Mariño	30 puntu
13. Gure Txokoa	26 puntu
14. Amara Berri	20 puntu
15. Ordizia	18 puntu
16. Tolosa B	10 puntu

Lurraldekako 2. Maila.

Gazteak-Danena	3-4
Donibane-Amaroz	1-4
Inburre	(atsedena)
Sailkapena	
(I. multzoa-Igoera fasea) ▶	
1. Lagun Onak	24 puntu
3. Danena	12 puntu
7. Gazteak	4 puntu
Sailkapena	
(II. multzoa-Igoera fasea) ▶	
1. Dunboa	18 puntu
7. Inburre	5 puntu
Sailkapena	
(II. multzoa-Kopa) ▶	
1. Lasarte Oriá	17 puntu
2. Amaro	14 puntu
7. Donibane	0 puntu

Jubenilen 1. Maila.

Billabona-Texas lasartearra	4-4
Inburre-Vasconia	0-4

FUTBOL 7

1. Maila.

Ibarrako GA-Knauf D.Nuñez	1-5
Ibarrako GA-Callejo Lanperna	3-0
Sailkapena ▶	
1. Zuma G.H.	14 puntu
2. B. Ignacio Hondarribia	13 puntu
3. La Kabutzia	13 puntu
4. Zardoya Otis	13 puntu
5. Perku taberna	11 puntu
6. Knauf Dec. Nuñez	11 puntu
7. Robers	10 puntu
8. Ibarrako Gazte Asanblada	10 puntu
9. Kroms	10 puntu
10. Zibibibo Dance Club	7 puntu
11. Bataplan	6 puntu
12. Xalao Orió	6 puntu
13. Easo Motor	3 puntu
14. Ekin Fisioterapia Zentrua	3 puntu
15. Disco Bar Egur	3 puntu
16. Callejo Lanperna	-2 puntu

2. Maila A.

Rock Star-Lanbroa Dickens	0-3
Sailkapena ▶	
1. Pub Oasis	18 puntu
2. Rcion. edificios Estevez	14 puntu
3. Lanbroa-Dickens	13 puntu
4. Bereziartua sagardoa	13 puntu
5. Depueblo.com	7 puntu
6. Buenavista jatetxea	7 puntu
7. Cesar Rueda seguros	7 puntu

8. Hispavista.com	7 puntu
9. Zurburri	7 puntu
10. Ikena	7 puntu
11. Renta 4	7 puntu
12. Akelenea sagardotegia	7 puntu
13. Cristaleria Langlass	5 puntu
14. Rock Star	5 puntu
15. Ron Cartavio	4 puntu
16. Zihurko	-2 puntu

2. Maila B.

Bar Shanti Kiroak-C.C. Aleman	6-2
Sailkapena ▶	
1. R. Izkiña Pasaia	16 puntu
2. Trinkete Ibaeta	15 puntu
3. Jalgi kafe antzokia	15 puntu
4. Amazkar taberna	13 puntu
5. Rotulek.com	13 puntu
6. Bar Shanti Kiroak	12 puntu
7. Prudey	12 puntu
8. Pub Egarrí	10 puntu
9. Fermax Instalaciones CG	10 puntu
10. St. Etienne Cafe Bar	8 puntu
11. Centro Cultural Aleman	4 puntu
12. Taberna Dani	4 puntu
13. Bar Bare/Callate la boca	4 puntu
14. Irish Guinness	0 puntu
15. Emaus Sports	0 puntu
16. Nu team	0 puntu

ZESTA-PUNTA

ESKOLARTEKO TXAPELKETA

Alebinak. Finala.

Laskorain-Maria eta Jose	2-0
--------------------------	-----

TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA

LEIRE MONTES

Hiru puntuko aldega zegoen bi talderen artean, eta horregatik partida lehiatua espero zen Berazubín. Norgehiagoka, baina, «ez zen espero bezala joan», eta Tolosakoek ezin izan zuten aurreko jardunaldiko «garai-polita» errepikatu. 2-5 galdu zuten Hegoaldeko Soto del Real taldearen aurka.

«Kontzentrazio handiz eta joko bizia eginez» ekin zioten partidari madrildarrak. Hegoalderen errotua, ordea, oso bestelakoa izan zen: «Kantxan lekua hartzea asko kostatu zitzaigun, eta haien erasoari eusteko lan handia egin behar izan genuen», azaldu du Maite Argote taldeko entrenatzaileak.

Haren esanetan, «jokalari kopuru handia eta talde joko orekatua» dira Soto del Real taldearen «alderik onenak». «Jokatu berri den selekzioaren arteko txapelketan, Soto del Real taldeko hiru jokalaririk funtsezkoak izan dira Madrilgo selekzioaren garaipenarako. Atezaina, esaterako. Espainiako selekzioaren aritzen da aspalditik».

Dena den, kanpokoen nagusitasunari erantzuteko gai izan ziren Tolosakoak, eta Miriam

Aurreko partidakoa errepikatu ezinik

2-5 galdu zuten Hegoaldeko Soto del Real taldearen kontra; Ane Larrañaga jokalaririk gazteak debutatu egin zuten



Miriam Arana Hegoaldeko jokalaria; gola sartu zuen. M. SOROA

Aranak sartu zuen lehendabiziko gola, hirugarren minutuan. Madrildarren erantzuna, baina, berehala iritsi zen: «Korner batean atzelarien hutssegitateatik lehendabizi, Maria Luisa Fernandez bikaintasunagatik eta gure sendotasun faltagatik bigarrenik, eta nahaste batengatik hirugarrenik», 1-3koa ezarri zuten Soto del Realgoek atsedendaldira joan aurretik.

Bigarren zatian, txukun

Bigarren zatian seriotasun handiagoz aritu ziren etxekoak. Euskarrietan oinarrituz, joko ona egin zuten Hegoaldeko markagailuan gerturatzea lortu zuten, eta partidaz jabe egin zela zirudien. Baina Madrilgo atezainaren jokaldiek eta Tolosakoek hutsak ate aurrean ezi-

nezko egin zuten Hegoalderen zatian partidari buelta ematea. Azkenean, beste bi gol sartu zituzten madrildarrek; baina, Argoteraren iritziz, «gol horiek ez dute islatzen ez gure nagusitasuna bigarren zatian ezta kantxako lehia ere».

Ane Larrañagak debuta egin zuten larunbatean. Entrenatzaileak jokalaririk gaztearen lana goraiatu du: «Azpimarratzekoa da haren lana. Laskorain taldean zaildutako neska hau etorkizun handiko jokalaria da».

Aste Santuko oporraldia dela eta, datorren asteburuan Hegoaldeko ez du partidarik izango. «Atsedean hartzeko eta indarberritzeko aprobetxatuko dugun». Apirilaren 2an jokatuko dute hurrengo neurketa: Ferrolen (Galizia) ariko dira, Meiras taldearen aurka.

HEGOALDE ▶ 2

SOTO DEL REAL ▶ 5

Hegoalde. Miriam Arana, Edurne Agirretxe, Amaia Azpilikueta, Nerea Salazar, Esther Videra, Gema Zelaia, Arrate Martinez, Ane Larrañaga, Isa Barrio, Naiara Mayo, Nerea Arana eta Itziar Aldezabal. Entrenatzaileak: Virginia Amilibia eta Maite Argote.
Soto del Real. Beatriz Montoya, Maria Garcia, Raquel Mondoruza, Maria Luisa Fernandez, Sonsoles Jimenez, Sandra Sanz, Veronica Sanz, Noemi Morales, Patricia Gonzalez, Jone Sanchez, Inmaculada Fernandez eta Cristina Rodriguez. Entrenatzaileak: Carlos Jesus Pulido.
Golak. 1-0: Miriam Aranak (03m.); 1-1: Maria Luisa Fernandezek (09m.); 1-2: Maria Luisa Fernandezek (13m.); 1-3: Sonsoles Jimenezek (18m.); 2-3: Isa Barriok (26m.); 2-4: Noemi Moralesek (36m.); 2-5: Jone Sanchezek (38m.).
Epaileak. Luis Miguel Solis, Sergio Mugueta eta M. Angel Martin.

GAZTERIA ▶

Topagunea, oporretan ere bizi-bizi

Martxoaren 31tik apirilaren 3ra askotariko ekitaldiak antolatu dituzte

I. ETXEBESTE

Tolosako Udaleko Gazteria departamentuak ekitaldi bereziak antolatu ditu 13 eta 17 urte bitarteko gazteentzat Aste Santuko oporraldirako. Hilaren 24etik 28rako asteburuan, hau da, ostegunetik astelehenera bitartean, itxita izango da Gazte Topagunea, bertan jarduten duten hezitzaileek eta udal ordezkariak opor egunak dituztelako, baina bigarren astetik aurrera askotariko ekitaldiak izango dituzte gaztetxoek aukeran. Pazko astean, martxoaren

31tik apirilaren 3ra «ekin-tza bereziak antolatu ditugu Topagunetik», esan dute bertako arduradunek.

Izan ere, hilaren 31n, osteguna, tailer bereziak izango dira, 16:30etik 20:30era Topagunean. Kamiseta pertsonalak, brotxeak... egiteko aukera eskaintzen dute tailer horiek. Hurrengo egunean, apirilak 1, Biarritzera irteera antolatu dute, hango karting-etara joateko. Antolatzaileek esan dute 14 urtetik gorakoek baino ezingo dutela Biarritzeko irteerarako izena eman, eta irteera San

Frantzisko pasealekuko autobus geltokiaren parean izango dela, 14:30ean. Bertara joan nahi dutenek 7 euro ordaindu beharko dute.

Apirilaren 2an, berriz, Play Station erraldoia egingo dute, 16:30ak eta 20:30ak bitartean, Topaguneak Kultur Etxean duen lokalean, eta azken egunerako, apirilak 3, sukaldaritza tailerra prestatu dute Topagunekoek. Ekitaldi hori «sorpresa modukoak» izango dela iragarri dute, eta egun horretarako bitarte gaztetxoek ez dute, beraz, jakiterik izango zer egingo

duten zehatz-mehatz. Gainerako tailerren eta ekintzen modura, 16:30etik 20:30era izango da sukaldaritza tailerra, Topagunean bertan.

Antolatzaileek adierazi dutenez, lehenbailehen eman beharko dute gaztetxoek izena Topagunekoek antolatutako ekintzetan parte hartzeko. Biarritzera doazenez 7 euro ordaindu beharko dituzten bezala, tailerretan eta gainerako ekintzetan parte hartu nahi dutenek euro bana ordaindu beharko dute. Oraindik ere izena emateko dutenek bi aukera dituzte horretarako. Kultur Etxeko telefono zenbakira dei daiteke: 943 67 03 83, edo Topaguneak duen posta elektronikora idatzi: topagunea@eus-kalherria.org.

GIZARTEA ▶

Erromeri giro ederra usadio zaharrentzat

Udaberri dantzari taldeak antolatutako ekimenean 80 bat lagun bildu ziren

IRATXE ETXEBESTE

Usadio zaharrak berreskuratzea bazen, besteak beste, Udaberri dantzari taldeak antolatutako ekimenean helburuetako bat. Garai bateko euskal jaia herritarren eskura jartzea, alegia. Horretarako egin zuten larunbatean, bigarren urtez, erromeria herrikoia. Izan ere, azken urteetan galtzeaz gora izango ziren, hala ere, afalosteko jaiari heldu ziotenak... Horiek guztiek fin-fin ekin zioten dantzari Epelde eta Larrañaga trikitilariak jotako piezen doinueta. Jai herrikoiaz gozatu zutenek goizeko ordu txikiak arte luzatu zuten Abastos plazako erromeria; «lau lagun geratu ginen arte», hain zuzen ere.

18:30erako zuten egina hitzordua antolatzaileek plaza Zaharrean, eta ur tantak baillan joan ziren agertzen garai bateko euskal jantziak soinean zituzten neska-mutil eta gizon-emakumeak. Batzuk bikoteka, besteak lagun-taldean... Koadrilla polita osatu zuten dantza zaleek, 80 lagun ingurukoa, eta tabernaz taberna, triki-poteoa egin zuten lehendabizi. Ingu-

ruan zituzten trikitilariak eta dultzainariak, etenik egin gabe, giroa alaitzeko. Gisa horretan eman zituzten afalosteko bitarteko orduak.

Afaritarako Abastos plazan bildu ziren erromeria herrikoian parte hartu zutenak. Ordurako joanak ziren txikiak eta edadetuenak etxe aldera, eta beste asko afaldu eta berehala erretiratu zen. Hogeita hamar lagunetik gora izango ziren, hala ere, afalosteko jaiari heldu ziotenak... Horiek guztiek fin-fin ekin zioten dantzari Epelde eta Larrañaga trikitilariak jotako piezen doinueta. Jai herrikoiaz gozatu zutenek goizeko ordu txikiak arte luzatu zuten Abastos plazako erromeria; «lau lagun geratu ginen arte», hain zuzen ere.

Aurretik, larunbatero-larunbatero Udaberri dantzari taldeak antolatutako ikastaroetara euskal dantzak ikastera joaten diren haurrek eta gaztetxoek jardun zuten ikasitakoak jendeari erakusten. Goizean ete arratsaldean; bitan eskaini zuten ikuskizuna. Haiek izango dira, agian, berreskuratzen ari direna mantenduko dutenak.



Denak bildutakoan, triki-poteoa egin zuten dantzazaleek. N. LATABURU



Abastos plazan afaldu zuten Udaberriren festara joandakoek. J. SAIZAR

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39
lbarraldea. Osasun etx: 672411
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 00 68 00
- ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
- ▶ Amaro zko dispen.: 67 26 37
- ▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
- ▶ Tolargi: 65 00 16
- ▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25
- ▶ DYA: 67 25 36
- ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
- ▶ Ertzaintza: 53 88 20
- ▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Tolosaldea bus: 65 06 21
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04
- ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
- ▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888
- ▶ Txolarre Irratia: 69 80 38
- ▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2 (Tolosa). Telefonoa: 943 67 01 28.
Plaza. Elbarren, 36 (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publici@tolosaldeko hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info
Anoetaleda. 687 41 00 22
anoetaleda@tolosaldeko hitza.info
lbarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko hitza.info
Leitzaldea. 687 41 01 18.
leitzaldea@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUAN

Leitza. Olalde taberna alokatzen da. Jatetxea aparte alokatzeko aukera. Interesatuak deitu 948 510 293 telefono zenbakira.

ZIZURKIL ▶ HIRIGINTZA



Oria ibaiaren gaineko pasabidean bi lagun pasiatzen; atzean urbanizazio lanak egingo diren Ubare auzoa ikusten da. I. GARCIA

Oria ondoko ibarra hobetzeko lau urtetan lanak egingo dira

221 milioi pezetako kostua izango dute; Udalak %25a eta Izartu programak aurrekontuaren %75a jarriko dute

IMANOL GARCIA

Oria erreka ibarra zaharberritzeko plana burutuko da datozen lau urteetan. Zizurkilgo Udalak «oso garrantzitsutzat» jo dituen lan hauek Eusko Jaurlaritzaren Izartu programaren diru laguntza jasoko dute. 2005etik 2008ra egingo diren obra hauetako aurrekontua

guztira 1.328.040 eurokoa (221 milioi pezeta inguru) izango da eta Izartu programak aurrekontuaren %75a jarriko du eta beste %25a Udalak jarriko du, hau da, 332.010 euro (55 milioi pezeta inguru). Udalak lanen proiektuen erredakzioa eta zuzendaritza bere kargu hartuko ditu, hau da, 100.000 euro (17 milioi pezeta inguru).

«Udalarentzat eta herritarrentzat esfortzu handia suposatuko du», azaldu dio HITZARI Marian Lazkano Zizurkilgo alkateak. «Bai ekonomikoki eta bai teknikoki erroka bat suposatzen du Udalarentzat». Oria ondoko ibarra hobetzea da helburua. Ibaiaren bideratzea egokitu egin beharra zegoenez, obrak horiek aprobete

txatu egingo dira Ubare eta Aurrera auzoen urbanizazioa egiteko.

Lau urtetan zehar banatuko dira lanak eta aurrekontua. Aurten Renferen geltoki ondoko aparkalekua egingo da, 184.370 euroko kostuarekin. Honetaz gain proiektuen erredakzioaren kostua sartuko da aurtengo udal aurrekontuetan, hau da, 70.000 euro.

2006. urtean Ubare auzoan egingo dira lanak, Ubare 3 deituriko zonaldean. Kostua 379.755 euroko izango da. Beste bi zonaldeetako lanak, Ubare 1 eta Ibare 2, 2008ko aurrekontuetan sartuko dira, guztira 473.970 euroko kostuarekin. 2007ko urtean Aurrera auzoko lanak egiteko asmoa dago. Kostua 184.065 eurokoa izango da. Urte berdinean, ibai gaineko pasarela egokituko da. Lan hauek 135.880 euroko kostua izango dute.

ANOETA ▶ HIRIGINTZA

Ondasun higiezinari buruzko zergan Udalak familia ugariarentzat hobariak zehaztu ditu bando bidez

Interesa dutenek eskaera aurkezteko azken eguna hilaren 31 izango dute

I. GARCIA

Udalak bando bat atera du familia ugariarentzat hobariak zehaztuz ondasun higiezinari buruzko zergan. Horrela, hiru seme-alabako familia ugariak %50eko hobaria izango du, 35

euroko mugarekin. Lau seme-alabako familia ugariak, berriz, %60ko hobaria izango du, 42 euroko mugarekin. Azkenik, bost seme-alaba edo gehiagoko familia ugariak %90eko hobaria izango du, 63 euroko mugarekin.

Eskaera aurkezteko epea hilaren 31n bukatzen da. Eskararekin batera ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar da: famili ugariaren liburuaren fotokopia, 2004ko ekitaldiko ondasun higiezinaren zergaren ordainagiria eta familia ugaria-

ren titularrak etxebizitza bakarra jabetzan duela eta familia-kide ezberdinak bertan erroldatuta daudelaren aitopena. Interesa duenak informazio gehiago nahi izanez gero udaletxeko bulego orokorrera jo dezake.

ANOETA ▶

Xakean jolasteko taldetxoak helduentzat

Anoetako Udalak xakean jolasteko helduen taldetxo bat sortu nahi du, eskola orduetan. Gutxienezko jende kopuru bat apuntatzen bada, izena emandakoei deituko diete bilera batera eguna eta ordua adosteko. Interesaturik dagoena, izena eman Iru-rako edo Anoetako udaletxetan martxoaren 31 baino lehen.

ANOETA-IRURA ▶

Autodefentsa ikastaroa apiriletik ekainera

Anoetako eta Iru-rako udalek autodefentsa ikastaroa antolatuko dute. Landuko diren gaiak, besteak beste: gure gorputzaren ezaguera, bere posibilitateak eta punto ahulenak ezagutu; erlaxazioa, arnasketa eta kontzentrazioa. Ikastaroa 12 urtetik gorakontzat zuzenduta dago. Iru-ran emango dira klaseak, apirilaren 5etik ekainaren 28ra. Langileek 45 euro ordaindu beharko dituzte; langabetuek (agiria aurkeztuz), ikasleek (18 urtetik gorakoei agiria aurkeztuz) eta 65 urtetik gorakoei 30 euro. Izena emateko epea hilaren 31 arte, Iru-rako edota Anoetako udaletxetan.

ANOETA ▶

KZgunean tutorea izango da hilaren 31n

Anoetako KZgunea itxita izango da Pazko Asteko astearte eta asteazkenean, hilak 29 eta 30. Ostegunean, hilak 31, tutorearen bisita jasoko du goizeako 9:00etatik 13:00etara. Tutoreak mintegi bat emago du egin horretan, 10:00etatik 12:00etara. *Etxebizitza erosteko ikastaroa* izenburupean.

ANOETA ▶

Festa alternatiboak antolatzeko bilera berri bat bihar

Bihar, astezkena, festa alternatiboak antolatzeko bilera berri bat egingo da udaletxean. Bilera arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

ELDUAIN ▶ SUTEA



Suhiltzaileak 15:00etan lortu zuten sua kontrolatzea, lau guneean barreiatu zena. JOKEMI SAIZAR

100 hektarea suntsitu zituen sutea berriz piztu zen atzo goizean

Igandean 01:00etan piztu zen; A-15 errepidea eta GI-2130 errepidea sei orduz itxi zituzten igande goizean

NOELIA LATABURU

A-15 errepidearen 146 eta 147 kilometroen artean igandean 01:00ak aldera piztu zen suteak 100 hektarea suntsitu ditu Elduainen. Igande goiz guztian suhiltzaileak lanean aritu ostean, 15:00etan lortu zuten sutea erabat itzaltzea. Dena den, atzo goizean berriz ere sutea piztu zen, 12:30erako kontrolpean bazen ere, suhiltzaileen lan azkarrari eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bertan ezarritako laguntza taldeari esker.

Sutea sortzearen arrazoiak ez dira oraindik ezagutzen, baina «zigarro batek edo antzekoak eragin behar izan zuen errepidetik», azaldu zuen Elduaingo alkatea de Bittor Muñagorri, eta horrexegatik «norbaitek eragina» izan delaren susmoa dago.

Sutearen ondorioz Andoain eta Berastegi arteko A-15 errepidearen tartea eta Elduain eta Berastegi arteko bigarren mailako GI-2130 errepidea itxi zituzten. Ez zen zauriturik izan, baina sutearen garrak Elduaingo erdigunetik 50 metrora heldu zen une batez.

Bestalde, Elduaingo Santa Kruz ermita erabat suntsituta geratu zen. Ermita honek 400 urte bete zituen aurreko urtean

eta duela hiru eraberritu egin zuten. «Lau pareta bakarrik geratu dira», azaldu zuen Muñagorri.

Herritarren laguntza

Elduaingo biztanle gehienak sutearen ondorioz iratzarri ziren, larriturik. Horietatik asko izan ziren laguntzeko prestatu zirenak. «Hogei herritar inguru aritu ziren ahal zen neurrian la-

guntzen Berastegiko mugarrino eta bertan Berastegikoak ere aritu ziren», aitortu zuen Elduaingo alkatea. «Jarrera hau eskertzeko da», gaineratu zuen Muñagorri.

Santa Kruz ermitarekin batera ere inguruan zegoen borda bat suntsitu zuen suteak. Erraustutako lur sailaren %60a, asko gutxi, partikularrena zen, gainontzekoa Elduaingo Udalarrena zelarrik.

MUSIKA ▶

Loatzo musika eskolaren azken emanaldiak

Aurreko astean hasi eta bihar amaituko dira Loatzo musika eskolak eskualdeko hainbat herritan eskainitako emanaldiak. Gaur Larraulgo elkartearen eta Villabonako Gurea zinean joko dute, 18:00etan eta 19:00etan, hurrenez hurren. Azkean saioa, berriz, bihar burutuko dute Anoetan, 18:00etan herriko elizan. Azken kontzertu honekin bederatzi dira eskolakoek bisitaturiko herriak.

AMEZKETA ▶

Bihar, ezker abertzalearen herri batzarra

Apirilaren 17rako deituta dauden Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundearen harira, herri batzarra antolatu du Amezketako ezker abertzaleak bihar herrian. Batzarra 20:30ean izango da gela polibalentean. Herritar guztiei bertara azaltzeko deialdia luzatu nahi izan dute ezker abertzaleak, hauteskundeak gerturatzeko ari direla eta, ezker abertzalearen egoera aztertzeko.



'Aralarpiadak' pil-pilean

ALEGIA ▶ Irakasleei urte guztikoak bueltatzeko aukera izaten dute urtero Aralar institututako ikasleek, bigarren ebaluaketaren amaierarekin eta Aste Santuetako oporrekin bat eginez. **Aralarpiadak**: horrelaxe deitzen diete haiek Alegiako kiroldegian antolatzen dituzten herri kirolei. Sokatira, txapel jaurtiketa eta oskol apustuan aritu ziren, besteak beste ikasle eta irakasleak. Eguna areto futbol norgehiagokarekin amaitu zuten. N. LATABURU

eskerrik asko
Euskal Herria!

aek

Korrika
Euskal Herria euskalduntzen

ni ere bai

DRKGA-08/05

laguntzaileak: hitza

IBARRA ▶

Ibarrak 3-2
galdu zuen
larunbateko
derbian

Azken minutuan epailearen huts-egite baten ondorioz irabazi zuen UPV/EHU-k

I. TERRADILLOS

Ibarrak ez dute batere zortetik epaileekin aurtengo denboraldian, jokatu berri duen partidan ere irabazi beharrekoak azken orduan eskutik alde egin baititio, eta epaileak zerikusi handia izan zuen horretan.

Derbia jokatu zuten larunbatean UPV/EHUk eta Ibarra areto futbol taldeak Bidebieta kiroledegian. Partida oso interesgarria izan zen, lehia estua eta tentsioa nagusitu zen bitaldean artean.

Ibarrak Karrera, Labaka, Kamio eta Ustaritzin bajak zituen beraz, Cesar Roca entrenatzaileak jubenilen taldeko jokariak erabili behara izan zituen. Maila ona erakutsi zuen Ibarrak. Donostiarrek erasoan gogor hasi baziren ere, ibartarrek defentsan sendo egin zieten aurre. Lehena eta bigarrena Ibarrentzat Hautsik sartu zituen, bigarrena, 0-2koa bigarren zatian. Berdinketaren bi golak segituan egin zituzten donostiarrek, baina une okerrean azken minutuan iritsiko zen, jokaldi horretan epailearen huts egitearen ondorioz donostiarren gola markagailura igo eta horrela amaitu zen partida. Jubenilek, bestalde galdu egin zuten 7-5.

IBARRA-LIZARTZA ▶ ATXILOKETAK

Atxilotuak Parisen,
baina inkomunikatuta
jarraitzen dute

Gaur gauean espero dute deklaratu dutela; Lizartzan konzentrazioak egunero eta Ibarren batzarrak egingo dira



Manifestazio jendetsua egin zuten Ibarren hiru presoan alde. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Larunbat goizean atxilotu zituzten Le Cap D'Adge herriko etxebizitza batean Montpellieretik hurbil Haimar Altuna eta Maite Aranalde ibartarrak eta Iñaki Arietaleaniz bergararra Frantzia eta Espainiako poliziek elkarrekin egindako operazio baten barruan ETako kide izatea leporatuz. Polizia iturriek diotenaren arabera, pistola bat, gai kimikoak eta matrikula plakak atzeman zizkieten besteak beste.

Le Cap D'Adgen Frantziako Poliziaren zaintzapean izan eta gero, atzo goizean eraman zi-

tuzen Parisera. Frantziako legediaren arabera «terrorismoaren aurkako operazioetan» 96 orduz izan ditzakete inkomunikatuta atxilotuak; Parisera epailearen aurrean deklarazaten eraman dituztela badiote ere, atzo oraindik ere ez zuten inongo deklaraziorik egin —erredakzioa itxi aurretik— eta gaur gauerarte luza daitekeela azaldu dute atxilotuen senideek hauen abokatuekin hitz egin ostean.

Senideak atxilotetak jakin orduko abiatu ziren Montpellier inoan dagoen herrira. Poliziaren zaintzapean zeuden han, eta senideak hara larun-

batean heltzean, «traba dezentze jarri ostean» azkenean lortu zutela atxilotuentzat ekarritako janaria, arropa eta familien argazkiak ematea azaldu dute. Era berean, poliziak harriturik galdetu ziela ea nola jakin zuten atxilotuen berri, eta «han ez dutela torturatzeko» adierazi ziela Frantziako poliziak azaldu diote HITZARI atxilotuen senideek.

Mobilizazioak bi herrietan

Atxiloteten berri izan bezain pronto Lizartzan eta Ibarren atxilotetak salatzeako kalera atera ziren herritarrak. Lizartzan, manifestazioa egiteaz gain, ezohiko bilkura egin zuten igandean. Atxilotuak askatzeako, hauen jarraipena egiteko konpromisoa hartuko duela, gatazkaren irtenbidea Euskal Herriari zor zaizkion eskubideen errespetuan datzala aldarrikatzen duela eta atxilotetak irauten duen egunetan egunero konzentrazioa egitea 20:00etan udaletxe aurrean zioen mozioa aurkeztu zuen Axurdariok eta onartua izan zen.

Ibarren, bestalde, manifestazio jendetsua egin zen igande arratsaldean eta gaur eta bihar batzar informatibora deitu dituzte herritarrak. 20:00etan egingo dira Kultur Etxean.

IBARRA ▶

Udalaren ezohiko
bilkurareko
deialdia

Gaur Udalbatzarraren ezohiko bilkura izango da 13:30ean. Eguneko gai zerrrenda, bakarria izango da gaurkoan, 2005eko apirilaren 17an Eusko Legebiltzarreko kideak hautatzeko Hauteskunde-mahaietako kideak aukeratzea, alegia.

IBARRA ▶

Argindegiko
zozketarako
zerrenda

Ibarrako udaletxe iragarki taulan ikusgai daude jada Argindegi 18-20 zenbakietan eraikiko diren udal sustapenerako etxebizitzaren zozketarako onartutako eta baztertutako eskatzaileen behin-behineko zerrendak. Hauen inguruko alegazioak aurkezteko epea apirilaren 6an bukatuko da.

BELAUNTZA ▶

Aste Santuan
KZgunea
oporetan

Aste Santua dela eta atzo hasita martxoaren 29ra bitarte KZguneak oporrak hartuko ditu Belauntzan. Bitarte horretan udalak, hala nahi izanez gero, KZgunea irekitzeko aukera izango du, baina kontuan hartu behar dute erabiltzaileek edozein arazo edo zalantza badute arduradunak edo tutoreak martxoaren 30 arte ez direla bertan egongo horiek argitu ahal izateko.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheha
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Alegia. San Joan kalean 161 m²-ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trasteleku eta garajearekin.

Donostia. Sagues auzoan etxebizitza salgai, igogailuarekin, eguzkitsua.

Ibarra. San Ignazio auzoan. Etxebizitza berokuntzarekin.

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Ikaztegieta. 6 etxe abikien eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

Irura. Ibai aldera. 3 logela eta bi bainugela dituen etxebizitza salgai. Trasteleku eta garajearekin. Ezin hobeto.

Irura. Borda ikusgarria salgai. Ikusteko modukoa!!!

Legorreta. Pisu merkea, 3 logelarekin, sukaldea, egongela, eta bainugela (berritua). Berokuntza. 142.440 euro!!!!

Tolosaldea. Eraikuntza berriko etxe bifamiliar zoragarria salgai. Portxe eta lorategiarekin. Ikusgarria!!!

Tolosa. Alde Zaharra. Hainbat etxebizitza 142.440 eurotik aurrera.

Tolosa. Amaro. Hainbat etxebizitza igogailuarekin. 234.395 eurotik aurrera.

Tolosa. Erdialdean. 130 m²-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua) eta 2 bainugela. Ezin hobeto, dena berritua. Kanpoaldera. Bista ederrak.

Tolosa. Erdialdean. 100 m²-ko etxebizitza ederra. 3 logela, 2 bainugela. Igogailua. Garajea aukeran.

Tolosa. Hijas de Jesus. Eraikuntza berriko etxe altua salgai, oso eguzkitsua. Hobekuntzak ditu. Garajea aukeran.

Tolosa. Izaskun auzoa. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela dituen etxebizitza salgai. Berokuntzarekin. 192.325 euro.

Tolosa. Nafarroako etorbidea. 105 m²-ko etxebizitza. Guztiz berritua. 315.531 euro.

Tolosa. Iurre. 2 logela eta bainugela. Oso egoera onean.

Tolosa. Larramendi. Eraikuntza berria. 2 logela, sukaldea, egongela,

bainugela. Trasteleku. Berokuntza.

Tolosa. Larramendi. 3 logela, egongela, sukalde berritua. 2 bainugela. Igogailua.

Tolosa. Trinkete. Eraikuntza berriko etxe zoragarria. 3 logela eta 2 bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto !!

Tolosa. Zumalakarregi, toki ezin hobean, ibai aldera bistak. 101 eta 109 m²-ko, bi etxebizitza.

Estreinatze, guztiz berrituak izan ondoren. Kalitate oso onak. Igogailua eta berokuntzarekin !!!

Zizurkil. Ernio Bidea. Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela,

egongela, sukaldea, 2 bainugela. Trasteleku pisuan eta ganbaran. Ezin hobeto.

LEITZA ▶ KIROLA

Bengoetxea-Belokik oraingoan ezin izan dute txapela eskuratu

Partidu gogorra eta 22-12ko emaitza agerian, Martinez de Irujo eta Goñi III.ak lortu zuten Bibitako Txapelketako saria

JAIONE ASTIBIA

Ingandean jokatu zen Bibitako Pilota Txapelketa finala Atano III. ean, Donostian, eta Oinatz Bengoetxea leitzarrek eta Ruben Beloki burlatarrak osatutako bikoteak ezin izan zuten garaipena eskuratu, Martinez de Irujo-Goñi III. a atera baitziren garaile 22-12ko emaitzarekin.

Emaitzari erreparatu, bikoteen artean alde handia iragartzen badu ere, partidua borrokatua izan zela esan daiteke eta nabarmen, bi zatikoa. Hasiaren markagailua urdinen aldekoa izan zen, atzean Belokik agindu zuen, eta aurrean auserart ibili zen Bengoetxea ere. Halaxe baieztatu dio HITZARI leitzarrek berak: «Oso motibatuta hasi ginen biak hala biak ere, gustura jokatu. Tanto politikak joan ziren, oso burrukatutakoa. Zazpina berdin eta gero 12-10 ere egon ginen», zioen. Baina, urdinen akats pare batek, markagailuari itzulia eragitea ekarri zuen eta batez ere Martinez de Irujoaren esnatzea. «Irujok indarra hartu zuen eta partiduari erritmo handia ezarri zion. Sekulan baino gehiago jokatu zuen», eta partidua garaipena hortik etorri zitzaizela iritzi zion, bestalde, Goñiren lana ere goretsez.



Orain buruz-buruko txapelketari ekinen dio Bengoetxeak. JAIONE ASTIBIA

Aurreneko aldiz parte hartu horrelako moduko txapelketan eta behin finalera iritsita, irabaztea ere amets egin arren, aurtengoan azpitxapeldun izatearekin konformatu beharko du leitzar gazteak. Baina, partiduan eta txapelketa osoan egindako lanarekin gustura ageri zen pilotari gaztea: «Txapelketa hasi zenean ez nuen espero honeraino ailtzerik. Eta gustura nago, oso. Partidua ere, ikusteko polita izan zelako

an nago». Ospatzeko, bertara joan ziren hainbat herritarrekin batera, aforitxoa egin omen zuten Belokik eta biekin.

Aurrera begira, gaur bertan aurkeztuko duten Buruz-buruko Txapelketari begira jarri eta prestaketekin hastear da orain, Oinatz Bengoetxea: «Fisikoki indar handia behar da hor aripelketa eta arlo desberdinak lantzeko behar dira», argitu du. Aurtengoarekin bigarren aldiz parte hartuko du.

LEITZA ▶ KIROLA

Aldeko emaitza lortu arren, partidu motela

San Inazio taldeari 3 gol sartu ondoren, 3 puntuekin itzuli dira Aurrerakoak etxera

J. ASTIBIA

Larunbatean zuen partidua Aurrera futbol taldeak, San Inazioen aurka eta Iruñetik hiru puntuekin itzuli ziren, 0 eta 3ko emaitza lortuta.

Markagailuari erreparatu bakarra bestela esatea ere zilegi zatekeen, baina partidua ez omen zen ona izan. Hala zioten bertan izandakoek behinik behin: «Partidu motela izan da, ez da ona izan, apenas jokurik gabea», baieztatu zioten HITZARI. Futbol zelaia belar artifizialduna izaki, nonbait ez dira baldintza horietan jokatzeko ohitzen leitzarrek, eta horrelakoetan ez dute jokatzeko asmatzen: baloiak punpa handiagoak egiten omen ditu, eta kontrolatzea zailagoa omen da. Baina, hala ere, aurrean izan zuten taldeak ere lan gehiegi ez zuela eman adierazi zuten Aurrera taldeko arduradunek: «San Inazio ez da batere ongi aritu, ez dute aukerarik sortu», zioten. «Eta guk sortu ditugun aukerak baliatu ditugu eta 0-3ko aldeko emaitza on bat lortu», gaineratu zuten. Arangoak bi gol egin zituen eta Gomezek bat, penaltia.

Horrela, asteburu honetako jardunaldiaren ondoren, sailkapeneko buru dagoen Baztanengandik puntu bakarrera dago Aurrera futbol taldea.

Lidergoan bazegoen ere, kontutan hartu behar da elurra zela eta, etxean jokatu beharreko bi jardunaldi jarraie-

tan ez zuela jokatzeko izan talde leitzarrek, zehazki Uharre Arakileko Aralar Mendi eta Antsoaingo Gazte Berriak taldeen aurkakoak; bestalde, arbitroek otsailaren 6an egindako plantearen ondorioz ere, hirugarren partidua bat badiela berreskuratzea. Hori bai, guztiak ere etxean jokatzeko suertatu zaio. Horrela, ondorengo egun eta asteetan lana erraz egin beharra egokituko zaio Aurrerari, oporraldiaz baliatuz.

Berreskurapenak

Hasteko etzi bertan, hilak 24, dute jokatzeko Aralar Mendiren aurkako partidua, Aurrerako Salazarren mutilek, 16:30ean eginen ere.

Ingandean federazioan jai dute eta ligako ohiko jardunaldirik izanen ez den arren, astelehena jai dela eta, Gazte Berriak taldearen aurkako partidua berreskuratzea baliatuko dute eguna. Partidura ko hitzordua 18:00etan egin dutela eman dute jakitera. Bost egunetan bi partidua jokatu beharra etorri zaie leitzarrei. Horri, hurrengo ingandean, apirilak 3, ligako azken jardunaldiko partidua erantsi behar zaio gainera. Ondoren jokatu dute arbitroena, Huarteren aurkako, apirilaren 17an, oraindik ordua zehaztu gabe badago ere.

Jada ligako azkenetan egonik, lehen postua hortxe-hortxe darabilte leitzarrek.

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin

kanikak
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 22a, asteartea ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzola, Aizua, Albitur, Añeta, Alzua, Alzo, Amadea, Aneto, Anso, Balanain, Belauntza, Berastegi, Berrota, Etxebarri, Herrialde, Ibarra, Itzaltzaga, Irujo, Jaxuri, Koldoza, Lizarza, Oteiza, Oteiza, Tolosa, Villabona, Zuzuki
besteriak: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jauriritza, Kultura Saila

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)
943 30 43 46

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

17

hotzena

11

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: bai
Albi: bai

Pagomari: bai
Igaratza: bai



Erramuak bedeinkatu zituzten

BELAUNTZA ▶ Herenegun Erramu igandea izan zen, eta, urtero bezala, Tolosaldeko eta Leizaldeko elizetan herritarrek eramandako erramuak bedeinkatu zituzten apaizek elizen atarrietan. Belauntzan adibidez, jende dezente bildu zen eguerdiko meza nagusira eta aurretik Joxe Mari Aranalde apaizak erramuak bedeinkatu zituen, argazkiak ikus daitekeenez. Aste Santua hasi da eta elizkizunen berri emango du HITZAK. J.SAIZAR

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 210.a.
Orrialdeak. 28.
Tirada. 5.000 ale.
Gai nagusia. Tolosako merkataritza aztergai.
Beste gaiak. Amaroizko merkatu txikia; Galdaragintza ikasketak; Josemi Gomez Elosegi; Jexux Argote...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Elkarteak.
▶ Nafarroa 6, behea (Tolosa)
▶ 943 65 50 04
▶ galtzaundi@galtzaundi.com
▶ www.galtzaundi.com

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 231.a.
Orrialdeak. 24..
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. 36ko gerran fusilatutako: Asteasuko seiak.
Beste gaiak. Iñaki Perurena Villabonan hizlari; Elurtearen oztupoak; Korrika Txikia; Lesmes Mujika...
Argitaratzailea. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
▶ Kale Berria 47, 3. (Villabona)
▶ 943 69 64 50
▶ aiurri@topagunea.com
▶ www.aiurri.com

AGENDA ▶

DEIALDIK

Anoeta. Loatze musika eskolako ikasleen kontzertua bihar 18:00etan elizan..
Berastegi. Donostialdera irteera antolatuta du gaurko Gaztainondo elkarteak.

Kursaalen Storaro erakusketa ikusiko dute eta ondoren Oiartzunen Gurutze-berri jate txan izango da bazkaria.
Tolosa. Oargi mendi elkarteak mendi marxa antolatuta du Boi haranera (Pirinioak, Lleida) hilaren 24tik 28ra, Aste Santuko oportetan. Izen-ematea lehenbailehen eman behar da

637 83 03 80 telefonoan.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Matxin Labaienen margolanak Lanbroa tabernan.
Tolosa. Ana Jesus Ansorenaren zeramika lanak Saikin tabernan.
Tolosa. Luis Mari Nuñez


harkatz eta boligrafo marrazkiak Fronton kafetegian.
Tolosa. Mikel Azpilikuetaeren margolanak Aranburu Jauregian.
Tolosa. Aitor Ruiz de Eginoren *Antrophozoofomak* eskulturak Aranburu Jauregian.
Villabona. Gorka Egurenen Pirinoetako argazkiak Maxola

tabernan.

ZINEMA

Alegia. Arrebato EH Iban Zuluetaeren filma ikusgai bihar Gaztetxean 21:30ean.
Tolosa. El escondite. Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean. Ikuslearen eguna.

AGURRAK ▶



EUSKAL PRESOAK GOSE GREBAN

Zazpigarren eguna. Isolamenduaren aurka. Ikasketak egiteko eskubidea. Zuekin bat! Tolosaldeko Bilgune Feminista. Maita eta Haimar, aurrera bolie!



URTE ASKOAN

Saioa eta Irune Arrospeide Goikoetxeandia (Lizartza). Eta belarri tirakada bat gure poxpolinek gaur 3 urte betetzen dituztelako. Etxeko guztien partetik.



URTE ASKOAN

Angel (Ibarra). Segi horrela!!



URTE ASKOAN

Nuria Azkarate (Tolosa). Gaur 4 urte. Amona Mari, izabasa, Jeray eta Lorearen partetik.

URTE ASKOAN

Nuria Azkarate (Tolosa). Gaur 4 urte. Zorionak aitaboreen partetik.

HITZA,
zorian agurren tartea
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!